



This project has received funding from the European Union's Horizon 2020 Research and Innovation Programme under grant agreement No 847068.

# HOBETU ZURE BIZI-KALITATEA ERAIKINA BERRITUZ

Luistarrak eta Gaztelu kaleetako eraikinen energia birgaitzeko eta irisgarritasuna hobetzeko laguntzak



agree



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Etxegintza  
Vivienda

Euskal Autonomia Erkidegoan duela 40 urte baino gehiago eraikitako eraikin asko **hotzarekiko eta beroarekiko isolamendu ona** instalatzea kontuan hartu gabe egin ziren. Horren ondorioz neguan **energia-gastu handia behar dute berotzeko**, eta udan **gehiegi kontzentratzen da beroa** barruan.

Gainera, eraikin horietako askok **ez dute igogailurik**, eta horrek zaildu egiten du egoiliarren mugikortasuna, kontuan hartuta kasu askotan adineko pertsonak izaten direla.

Akats horiek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak eta zure Udalak, Donostiako 'Etxegintza' bidez, eskaintzen dituzten laguntzei esker ongi daitezke.

## ERAIKINEN BIRGAIKZE INTEGRAL BATERATUAREN ABANTAILAK

1. Egoiliarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea.
2. Eraikinaren isolamendu termikoa eta irisgarritasuna hobetzea.
3. Ondasun higiezinaren balioa handitzen du.
4. Barne-konforta hobetzea.
5. Hezetasuna murriztea.
6. Etxebizitzaren kalifikazio energetikoa hobetzea.
7. Eraikinak batera birgaitzeak proiektuaren baldintza ekonomikoak hobetzen ditu.
8. Eraikin guztietarako irtenbide tekniko berberak.
9. Aurretiko azterketa teknikoetan kostuak aurrezteak.
10. Auzoaren itxura orokorra hobetzea.

### LUISTARRAK ETA GAZTELU KALEEN INGURUA




agree

### PROIEKTUAN

Europako AGREE proiektuaren esparruan, Donostiako Etxegintzak Luistarrak eta Gaztelu kaleen inguruko eraikinak hautatu ditu, bizilagunen erkidegoei beren eraikinen birgaitze integrala errazte aldera.

AGREE proiektuaren helburua eraikinen birgaitze integral bateratua sustatzea da, eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta egoiliarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Europako Batzordeak babesten duen proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak zuzentzen du, eta Gasteizko Adurtza eta San Kristobal auzoek eta Basauriko Federico Mayo auzoak ere parte hartzen dute.



# ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA INTEGRALA EGITEKO LAGUNTZAK

## LUISTARRAK ETA GAZTELU KALEEN INGURUKO ERAIKINETARAKO



## IRISGARRITASUNERAKO LAGUNTZAK 65 URTETIK GORAKOENTZAT ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT



## ZUREKIN GAUDE LAGUNTZAK ESKATZEKO PROZESU OSOAN



Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak **hitzarmen bat sinatu du Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-erakunde nagusiekin**, proiektu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei eraikinen birgaitze integraleko obren finantzaketa errazteko.

Gainera, **berariazko finantzaketa-tresna** bat diseinatu du, baldintza oso onuragarriekin, eta administrazio eta erakunde publikoek obra mota horretarako ezarrita dituzten dirulaguntzak gehitu ahal izango zaizkio.

## EUSKO JAURLARITZAREN FINANTZA-TRESNAREN ABANTAILAK:

- Mailegu bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 18.000 eurokoa izango da, eta maileguaren %100 erabili ahal izango da formalizatzen den unean bertan. Mailegu horiek berme handiagoak izango dituzte Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak sortutako eta Finantzen Euskal Institutuak kudeatzen duen Berme Funtzak eskaintzen duen estaldurari esker.
- Jabeen erkidegoak fatxadak osorik birgaitzeko lanak egin ahal izatea errazten du.
- Badago **Irisgarritasuna Sustatzeko Funtz Berezi** bat, 65 urtetik gorakoentzat eta desgaitasunen bat eta diru-sarrera urriak dituztenentzat edo finantzaketa lortzeko zailtasunak dituztenentzat. Funtz Berezi horrek irisgarritasun-obren **%100 ere** ordaindu ahal izango du.

Laguntzen programa honen onuradunak izango dira blokeak edo etxadiak osatzen dituzten etxebizitzaren jabeak edo eraikin elkartuen jabeen erkidegoak, horien eraikitze-data 1980 baino lehenagokoa bada eta hirigintza- eta egitura-egokitzapena badute.

## INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO,

Donostiako Etxegintzak auzoaren egoera globalari buruzko aurretiazko azterlan bat egingo du Luistarrak eta Gaztelu kaleetan; horrezaz gainera, herritarren parte-hartze publikorako prozesu bat ere abiaraziko du, beren beharrak jasotzeko eta finantza-erakundeek eskura duten finantzaketa eta administrazio publikoen laguntzak zehatz-mehatz azaltzeko.

## ERKIDEGOKO PRESIDENTEA BAZARA

eta zure eraikina osorik birgaitzeko dauden laguntzei buruzko informazioa nahi baduzu, honako bulego honetara jo dezakezu:

### Donostiako Etxegintza

San Martzial kalea, 2. 20005 Donostia

### Aurretiko zita

Telefona: 943 48 17 65 / 943 48 11 94

Emaila: [etxegintza@donostia.eus](mailto:etxegintza@donostia.eus)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Etxegintza  
Vivienda

## Zure eraikinean inbertitzea zure osasunean eta bizi-kalitatean inbertitzea da



[www.agree-basquecountry.eu/es/](http://www.agree-basquecountry.eu/es/)

AGREE HORIZON2020

AgreeEU\_project

Proyecto AGREE Horizon 2020



tecnalia Inspiring Business

